

Geziak erabilita, lotu zeruko gorputz bakoitza dagokion definizioarekin:

- | | |
|----------------|---|
| 1. Asteroideak | a) Planeta baten inguruan biratzen diren gorputzak. |
| 2. Sateliteak | b) Izar baten inguruan biratzen diren gorputz harritsuak. |
| 3. Kometak | c) Planeten edo sateliteen kontra talka egiten duten asteroideak. |
| 4. Meteoritoak | d) Hauts- eta izotz-bolak. |

Sailkatu Esne Bideko elementu bakoitza dagokion lekuan:

Merkurio	Jupiter	Artizarra	Saturno	Lurra	Urano	Marte
Neptuno	Pluton	Zeres	Eris	Halley	Hale Boop	
PLANETAK	PLANETA NANOAK	KOMETAK	SATELITEAK	ASTEROIDEAK		

Elkartu era egokian.

ERROTAZIOA

TRANSLAZIOA



365 egun eta 6 ordu

Eguzkiaren inguruan egiten duen mugimendua

24 ordu behar ditu

Bere ardatzaren inguruan egiten duen mugimendua


Urtaroak

Egunak eta gauak

Osatu Ipar hemisferioko urtaroei buruzko esaldi hauek. Erabili dagokion urtaroarene izena:

- a) Irailaren 23tik abenduaren hogeita batera, eguzki-izpiak zeiharrak dira, tenperaturak leunak dira. _____ da.
- b) Abenduaren 21etik martxoaren hogeira, eguzki-izpiak oso zeiharrak dira, tenperaturak baxuak dira eta gauak egunak baino luzeagoak dira. _____ da.
- c) Martxoaren 20tik ekainaren hogeita batera, eguzki-izpiak pixka bat zeiharrak dira, tenperaturak leunak dira eta egunak eta gauak berdintzen dira. _____ da.
- d) Ekainaren 21etik irailaren hogeita hirura, eguzki-izpiek perpendikularki jotzen dute, tenperaturak altuak dira eta egunak luzeagoak dira. _____ da.

Erreparatu Lurraren irudiari eta idatzi geosferako geruzen izenak.



Defini itzazu fenomeno meteorologiko hauek:

- a) _____ : aire-lasterrak dira. Aire beroak gora egin eta, aldi berean, aire hotzezko beheranzko lasterrak sortzen direnean eratzen dira.
- b) _____ : ur tantaz osatuta daude. Aire-masa bero eta hezeak lurrundu, atmosferan gora igo, hoztu eta kondentsatzen direnean eratzen dira ur tanta horiek.
- c) _____ : hodeietako urak behera egitean gertatzen dira.
- d) _____ : tenperatura berean ez dauden aire-masen talkak dira.

Irakurri definizioak eta esan planoari edo mapari dagozkion.

a) Herri, leku, eraikin, etxe, areto edo bestelako gauzaren baten goitik ikusitako geografia-irudikapenak dira. Elementu horiek non dauden adierazten dute:

b) Lurrazaleko eremu zabal baten irudikapena da, edo lurrazal osoarena, goitik ikusita eta eskalan eginda. Eremu baten eta bertan aurki dezakegunaren informazio geografikoa ematen digu:

Osatu plano eta mapa motei buruzko taula. Horretarako, erabili hitz hauek:

Tematikoa

Lineala

Zentroidea

Fisikoa

Irregularra

Ortogonala

Politikoa

PLANO MOTAK	MAPA MOTAK

Seinala itzazu lur-globoan elementu hauek.

